



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: KANTUA

2023-02-23

Nori zuzenduak?

Graduko **Kantu** interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten **ikasleei** zuzendua.

Sarrera probak 2023-2024 edo 2024-2025 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2023ko otsailaren 16ean** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joaten badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Kantu interpretazioan Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

ARRUABARRENA, Maite

Itziar Barredo irakasleak ere parte hartuko du.

9:30 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua ere egingo zaio

11:00-12:45 Maite Arruabarrena eta Itziar Barredo irakasleekin lan saioa jardunaldian izena eman duten ikasle aktiboentzat

13:00-15:00 Musikeneko ikasleekin lan saioa

15:00 Jardunaldiaren amaiera

Kantu jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan José Antonio Candaup Teklatu eta Kantu Departamentuko buruarekin: dpto.tecladocanto@musikene.net